

# 2021EKO

## MEMORIA
## ERALDAKETA DIGITALA
## AUZOLANEAN

EJIE

Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkartea

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco



2021ean, pandemiak baldintzatu du EJIEren jarduera; 2020an krisi soziosanitarioaren eta ekonomikoaren erronkari aurre egin behar izan genion, eta 2021ean krisi hori gainditzen laguntzen diguten erronkei erantzuten ahalegindu behar izan dugu. Besteak beste, txertaketa masiboa, aurretiko hitzorduak, Covid pasaportea eta Gobernuaren sistema ekonomiko eta finantzario berria izan dira esku artean izan ditugun proiektuak. Erronka horietan parte hartu du EJIEk, eta, bide horretan, Eusko Jaurlaritzari lagundu dio herritarrei zerbitzurik onenak eskaintzen.

Halaber, aurten garrantzitsua izan da PETIC onartzea, plan estrategiko hori erabiliko baitu Eusko Jaurlaritzak datozen urteetako gida teknologiko gisa.

2021ean, lehen aldiz, Gobernu Kontseiluaren hainbat zerbitzuren enkargua jaso dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko ereduari buruzko 36/2020 DEKRETUA garatzeko bidean. Eta enkargu horren gainean ezarriko dira, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren eta EJIEren arteko harremanak etorkizunean.

Horrez gain, gure bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzu berrietan eta horien kopuruan aurrera egiten jarraitu dugu. Aurrera egiten jarraitu dugu, era berean,  Eusko Jaurlaritzako organo kudeatzaile teknologikoa izaten, horixe baitugu eginkizun. Hala, zerbitzu publikoen digitalizazioa errazteaz eta zerbitzuon euskarri diren informazioaren eta komunikazioaren teknologien kalitatea, segurtasuna eta jarraitutasuna bermatzeaz arduratzen gara. Zibersegurtasuna bezalako gaitasun berrietan aurrera egiten dugu, berrikuntzan eta azpiegitura seguruetan baliabide gehiago eskainiz.

Eta hori guztia posible izan da EJIEko profesionalei eta gurekin dauden kolaboratzaile guztiei esker, erronka horiei guztiei aurre egiteko gai izan baitira, egoera berrietara egokituz eta modu digitalean lan eginez, emaitzei eta zerbitzuari begira. Lerro hauek amaitzeko, EJIEko langileak gogoratu nahi ditut. Elkarrekin, hitzarmen kolektibo berri bat adostu ahal izan dugu, bi gai oso garrantzitsu garatzen dituena eta nire ustez aitzindaria dena gure esparruan: telelana eta deskonexio digitala. Amaitzeko, EJIEk aurten egin duen ahalegina eskertu nahi dut, EAEn teknologiaren eta zerbitzuen arloko erreferenteak izaten jarraitzeko gogor aritu baita lanean.

Eskerrik asko denoi.



**ALEX ETXEBERRIA ARANBURU**

*EJIEko zuzendari nagusia*



# AURKIBIDEA




**ANTOLAKUNDEAREN EGITURA** ________ **06. orr.**

**KUDEAKETA AURRERATUA** ________ **08. orr.**

Hausnarketa estrategikoa
Plangintza estrategikoa
Kalitatea kudeatzeko gure eredua
Kalitate-politika
Gure konpromisoa
Gizarterako 2020ko ekintza-plana
Segurtasuna, jarraitutasuna eta pribatutasuna EJIEn
Irudia eta komunikazioa
Hizkuntza-politika

**GOBERNU DIGITALA** ________ **16. orr.**

**ADMINISTRAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK** ________ **22. orr.**

Barne-komunikazioko plana
Urteko prestakuntza-plana
Jardunaren ebaluazio-plana
EJIEko berdintasunaren alorreko ekintza-plana
Laneko segurtasun, osasun eta ongizateko plana
Enpresa Batzordearekin lortutako akordioak
Harrera-plana

**NEGOZIOARENTZAKO BABESA** ________ **28. orr.**

Erabiltzaileen arretarako zerbitzua
Hezkuntzako eta arlo soziosanitarioko zuzendaritza teknikoa
Ogasun eta funtzio publikoko zuzendaritza teknikoa
Zuzendaritza tekniko sektorial eta profesionala

**ZERBITZU BATERATUAK** ________ **36. orr.**

Berrikuntza eta zaintza teknologikoa

**EKITALDIAK ETA ALBISTEAK** ________ **42. orr.**

2021eko sariak eta hautagaitzak

**ALDERDI EKONOMIKO GARRANTZITSUAK** ________ **46. orr.**



# ANTOLAKUNDEAREN EGITURA


EJIE
ZUZENDARITZA NAGUSIA
Alex Etxeberria
KUDEAKETA AURRERATUA
Asier Ares
GOBERNU DIGITALA
Asier Sz de Vicuña
Zuzendaritza Teknikoa: Eraldaketa digitala
ADMINISTRAZIOA ETA LANGILEAK
Iñigo Díaz
NEGOZIOARENTZAKO BABESA
Juanjo Villa
Zuzendaritza Teknikoa: Ogasuna eta Funtzio Publikoa
Zuzendaritza Teknikoa: Hezkuntza eta arlo soziosanitarioa
Zuzendaritza Teknikoa: Sektoriala eta Profesionala
ZERBITZU BATERATUAK
Aritza Iratzagorria
Zuzendaritza Teknikoa: Azpiegiturak



# KUDEAKETA AURRERATUA

Hausnarketa
# ESTRATEGIKOA

Gure helburuen bidez (lidergo teknologikoa, eskaintzen ditugun zerbitzuen kudeaketa eraginkorra, segurtasunaren eta sendotasunaren arteko dialektika eta egokitze-gaitasuna eta berritasuna), gure misioa, bisioa eta balioak berriro definitu ahal izan ditugu.

## MISIOA

EJIE Eusko Jaurlaritzako organo kudeatzaile teknologikoa da. Zerbitzu publikoen digitalizazioa bideratu eta zerbitzuon euskarri diren informazioaren eta komunikazioaren teknologien kalitatea, segurtasuna eta jarraitutasuna bermatzeaz arduratzen da.

## BISIOA

Gure kudeaketa-sistemari esker, Euskal Sektore Publikoak eskatzen dituen IKT zerbitzuak zerbitzuen katalogo osoaren eta zerbitzu aurreratuen mailen arabera hedatzen dira, trebea eta osasuntsua den talde profesional baten laguntzaz, gizartearekin daukagun konpromisoari eutsiz eta berrikuntza erakundearen prozesu eta zerbitzu guztietara eramanez.

## BALIOAK

| Errespetua bezero diren erakundeekiko eta erabiltzaileekiko | Errespetua antolakundea osatzen duten pertsonekiko | Errespetua inguru sozialarekiko |
|---|---|---|
| *BEZEROA HELBURU* | *KONPROMISOA* | *EUSKARA* |
| *KALITATEA* | *IDENTITATEA* | *LANKIDETZA* |
| *SEGURTASUNA* | *BERDINTASUNA* | *JASANGARRITASUNA* |
| *BERRIKUNTZA* | *TALDE-LANA* | *GARDENTASUNA* |

# Plangintza **ESTRATEGIKOA**

| | ESTRATEGIA | BEZEROAK | PERTSONAK | GIZARTEA | BERRIKUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|
| | Epe luzerako ikuspegia sortzea eta interes-talde desberdinei arreta emateko beharrezkoak diren sistematikak eta ekimenak hedatzea, aukerak aprobetxatzea, arriskuak gutxitzea eta emaitza onak lortzea, modu jasangarri eta orekatuan. | Euskal Sektore Publikoak herritarrei ematen dizkien zerbitzuen digitalizazioa erraztea, horien euskarri diren IKTen kalitatea, segurtasuna eta jarraitutasuna bermatuz, eta emaitza onak lortzea gure zerbitzuen bezero diren erakundeen eta erabiltzaileen artean. | Pertsona-talde trebea eta erakundearen estrategiarekin konprometitua edukitzea, zerbitzuak eraginkortasunez emateko, lan-baldintza aurreratuen arabera, eta emaitza onak lortzeko erakundeko pertsonekiko. | Gure gizarte-ingurua hobetzea, gure erakundearen ahalmena aprobetxatuz; gure ingurumen-eragina murrizteko erabilitako baliabideak eraginkortasunez kudeatzea; eta emaitza onak lortzea gure gizarte-inguruan eta ingurumen-alderdietan. | Gure prozesuak eta zerbitzuak etengabe berritu eta hobetzea, sektore publikoaren abangoardian egon daitezen, eta emaitza onak lortzea erakundearen berrikuntzan. |
| **MISIOARI** dagokionez | Interes-taldeak asebetetzea areagotzea | Bezeroak asebetetzea areagotzea | Antolakundeko pertsonak asebetetzea areagotzea | Ingurumenaren gaineko gure eragina murriztea | Prozesuak eta zerbitzuak hobetzea gaitzea, berrikuntzaren bidez |
| | Finantza-jasangarritasuna bermatzea | Zerbitzu-mailak betetzen direla bermatzea | Laneko osasuna eta ongizatea ziurtatzea | Gizarte-inguruarekiko konpromisoa betetzen dela ziurtatzea | Faktore teknologiko gakoen gaineko zaintza ziurtatzea |
| | Prozesuen garapena hobetzea | Zerbitzuen jarduna hobetzea | Eskumen gakoen erabilgarritasuna bermatzea | Gure gizarte-ingurua asebetetzea ziurtatzea | Berrikuntzaren bidez eskuratutako ezagutza hedatzea ziurtatzea |
| **BISIOARI** dagokionez | Egitura organikoa eta prozesuak egokitzea | Zerbitzu-katalogoa garatzea | Telelanaren modalitatea normalizatzea | Erakundeak sare sozialetan duen irudia kudeatzea | Produktu berritzaile estrategikoen garapena eta bilakaera kudeatzea |
| | Kudeaketa-sistema egokitzea | Euskal Sektore Publikoaren proiektu estrategikoak hedatzea | Arlo barruko gatazkak murriztea | | |

# KALITATEA KUDEATZEKO gure eredua

## KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA (KAE)

Kudeaketa aurreratuaren ereduak honako sei elementu nagusi hauek biltzen ditu: estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak. Oinarri horien gainean egituratzen da EJIEren lehiakortasuna, hainbat esparrutatik hartutako kudeaketa-kontzeptuak bilduta.




# KALITATE-politika

Euskalitek emanda, kudeaketa aurreratuko Zilarrezko A errekonozimendua lortu genuen 2015ean. Haren ostean, gure taldeak konpromiso irmoa du zerbitzuaren kalitate-politika zabaltzeko eta kalitatearen kudeaketa-sistema etengabe hobetzeko (SGiQ).

EJIEren zerbitzuaren kalitateak bi printzipio orokor ditu oinarri:

- **BALDINTZA APLIKAGARRIAK BETETZEA:**

  Zerbitzuei aplika dakizkiekeen baldintzak betetzen direla ziurtatzea, erakunde bezeroen premiak eta igurikimenak nahiz arau- edo erregelamendu-baldintzak barne.

- **KUDEAKETA-SISTEMA ETENGABE HOBETZEA:**

  Kudeaketa-sistemaren prozesuak berritzea eta etengabe hobetzea ziurtatzea, espero diren emaitzak lortzeko gaitasuna eta heldutasuna areagotuz.

Ondoren, printzipio horietarako 2020an erregistratutako adierazleen emaitzak islatzen dira:

### Baldintza aplikagarriak betetzea

Bezeroen asebetetze-indizea: **7,46** 10etik

Adostutako zerbitzuen betetze-maila: **% 78,57**

Prozesuak kontrolatzeko helburuen betetze-maila: **% 69,54**

### Kudeaketa-sistema etengabe hobetzea:

Prozesuen heldutasun-maila: **4,06** 5etik

Prozesuko adierazle gakoen hobekuntza-indize garbia: **% 13,22**

## Gure
# GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA

EJIEn ondo jabetuta gaude gizartean daukagun inpaktuaz, ez gure misioa betetzeak ingurumenean eta arlo energetikoan dakarren inpaktuaz bakarrik, baizik eta inguruan modu positiboan eragiteko izan dezakegun gaitasunaz ere bai, horretarako ezagutza, baliabideak, jardunbide egokiak eta ikasitako gauzak partekatuta eta gure balioak dituzten beste erakunde batzuen ekimenak bultzatuta.

Printzipio hori aintzat hartuta, EJIEk konpromiso hauek hartu ditu:

**01** Gure jarduerak ingurunean duen inpaktua gutxitzea, ingurumen- eta energia-kudeaketako sistema zorrotz bat ezarrita eta ziurtatuta.

**02** Gure jardueraren gardentasuna bermatzea eta sustatzea, erakundeak sortutako interes publikoa zabalduta eta gizarteak egindako kontsultak erantzunda.

**03** EAEko IKT sektorearen eta IKT zerbitzuak kudeatzeko jardunbide egokien sustapenean aktiboki parte hartzea, sektoreko erakunde esanguratsuen eta haien lantaldeen bidez, baita helburu horrekin antolatzen diren ekitaldien bidez ere.

**04** Herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan euskararen erabilera erraztea.

**05** STEM bokazioak (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak) babestea, bereziki informatikarekin eta telekomunikazioekin lotutakoak, EAEko gazteen artean

Nahiz eta jarduera horrek eremu asko ukitzen dituen, datozen urteetan gure konpromisoan honako hauek sartuko dira batez ere:

**STEM bokazioen (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak) ikuspegi positiboa sustatzea, batez ere informatikarekin eta telekomunikazioekin lotutako gaietan, EAEko gazteen artean, arlo horietan goi-mailako ikasketak egitera anima daitezen.**

# GIZARTERAKO 2020ko
## ekintza-plana

Jarduera hauek egin dira:

### UNIBERTSITATEAK ETA IKASTETXEAK
EAEko unibertsitate eta hezkuntza-zentroekin lankidetzan jardun dugu, jakintza eta bitartekoak partekatzeko eta IKTetako profesional berriak trebatzeko (Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, San Jose ikastetxea).

### IKT SEKTOREKO EKITALDIAK
IKT sektorea eta kudeaketako jardunbide egokiak sustatzeko ekitaldietan parte hartu dugu (Kudeaketa Aurreratuko Europako Astea, EHUren Udako Unibertsitatea, ForoTech, Databeers, Librecon).

### IKT SEKTOREAREN SUSTAPENA
EAEko IKT sektorea eta IKT zerbitzuen kudeaketako jardunbide hobeak sustatzeko erakundeetan eta lantaldeetan parte hartu dugu (itSMF, Alastria, GAIA, BERIAIN, Q-epea).

### BERRIKUNTZAREN SUSTAPENA ETA KUDEAKETA AURRERATUA
Berrikuntza eta kudeaketa aurreratua sustatzeko erakunde eta lantaldeetan parte hartu dugu (Euskalit, Innobasque, itSMF eta Q-epea).

### KUDEAKETA AURRERATUKO KLUBA
Kudeaketa Aurreratuko Klubean eta beste ebaluazio-jarduera batzuetan parte hartu dugu (A Sariak, Kanpoko kontrasteak, Kudeabide, Zerbitzu Kartak).

### GARDENTASUNAREN ATARIA
EJIEren gardentasun-ataria mantendu dugu.

### LANERATZEA
Baztertuak izateko arriskua duten kolektiboentzako prestakuntza eman dugu teknologia-arloan, desgaitasun fisikoa, intelektuala eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen elkarteekin lankidetzan, haien autonomia sustatzeko; eta euskal herritarrei teknologiaren arloko prestakuntza eman diegu, beren laneratzea erraztu eta ekintzailetza bultzatzeko.

# Segurtasuna, jarraitutasuna eta **PRIBATUTASUNA EJIEn**

EJIEk, Zuzendaritzaren konpromisoetan zein ildo estrategikoetan, ISO 27001 nazioarteko estandarrean oinarritutako Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema (ISKS) mantendu eta hobetu nahi du, bai eta aplikatzekoak zaizkion lege, dekretu eta araudiak betetzen direla ziurtatu ere, bai erakunde gisa, bai Euskal Administrazio Publikoaren hornitzaile teknologiko gisa.

Oinarrian dauden printzipioak honako hauek dira:

- INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA

  Sortzen, zaintzen edo kudeatzen duen informazio guztiaren erabilgarritasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, trazabilitatea eta benetakotasuna zaintzea, bai eta informazio hori babesten duten zerbitzu eta sistema informatikoena ere.

- ARRISKUEN KUDEAKETA

  Aplikatzen diren antolaketa-, arau-, kontratu-, eragiketa- eta teknologia-mailako segurtasun-neurriak informazioaren kritikotasunarekiko eta informazioaren euskarri diren zerbitzu eta sistema informatikoei eragiten dieten arriskuekiko proportzionalak direla bermatzea, horiek behar bezala babestuz eta kostuaren eta onuraren arteko balantze egokia mantenduz.

- SEGURTASUNEKO GORABEHEREN KUDEAKETA

  Emandako zerbitzuen edo horien euskarri diren informatika-sistemen segurtasunari edo jarraitutasunari eragiten dioten gorabeherak modu eraginkorrean kudeatu eta ebazten direla ziurtatzea, berriro gerta ez daitezen.

- ZERBITZUEN JARRAITUTASUNA

  Eskainitako zerbitzuak ematen jarraitu ahal izango dela bermatzea, baita gorabehera larriren batek disfuntzioak eragin baditzake ere.

- SEGURTASUNAREN KULTURA

  Informazioaren segurtasuna erakundearen kulturaren parte dela zaintzea, langile guztiek segurtasun-jarraibideak modu arduratsuan uler, onar eta aplika ditzaten.

- PRIBATUTASUN-POLITIKA

  Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrarekin bat etorriz (2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua), aplikatu beharreko baldintzak betetzea, EJIEren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen datu pertsonalak nola jaso, tratatu eta babesten diren jakinaraziz.



# Irudia eta **KOMUNIKAZIOA**

2021ean, EJIEk erakundearen sare sozialak publikoari zabaltzea erabaki zuen, gizartearekin konektatzeko.

EJIE sare sozialetan egoteak gizarte honi Administrazio Publikoaren barruan markaren ospea eta irudia indartzen lagundu nahi dio, eta, aldi berean, barne-lanerako tresna bihurtu nahi du, garatutako zerbitzua gainerako gizartearen artean sustatzeko, oso modu erraz eta azkarrean.

Dauden sare sozial nagusietan profilak martxan jarrita, EJIEk erakundearen ikusgarritasun handiagoa eskaini nahi du, eta, aldi berean, garatutako lana herritar guztiei hurbildu nahi die, interes-taldeekiko komunikazio-bideak areagotuz.

Era berean, EJIEren sare sozialak abian jartzeak barne-azterketarako informazio garrantzitsua lortzea ahalbidetuko du, erakundearen inguruan sortzen diren elkarrizketak monitorizatzeko aukera emanez.

## *Bitarteko digitalen biltegia*

Bestalde, 2021ean, erakundean baliabide digitalen biltegi bat ireki zen, erakundearen irudi eta komunikaziorako elementu garrantzitsuenak biltzeko:

- Argazkiak
- Logotipoak
- Bideo korporatiboak
- Tipografiak
- Marka erabiltzeko eskuliburua
- …



## JARRAITU - HARPIDETU - PARTEKATU

**FACEBOOK**
*www.facebook.com/EJIE-109647180692963*

**TWITTER**
*twitter.com/EJIE_eus*

**INSTAGRAM**
*www.instagram.com/ejie_eus/*

**LINKEDIN**
*www.linkedin.com/company/885345*

**YOUTUBE**
*www.youtube.com/channel/UC3YblqYhizimdH8Ex_A0-pw*

## Irudiaren eta Komunikazioaren Prozesua

Gainera, arloko jarduera osoari eusteko, EJIEren kalitate-sisteman sartu zen Irudiaren eta Komunikazioaren Prozesuaren lehen bertsioa, arloko jarduerak kudeatzen dituena:



# HIZKUNTZA-politika

2021eko euskararen kudeaketa-planean, aurreko urteetan bezala, EJIEk bi ardatz nagusi landu ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza. EJIE bezalako enpresa batean lehenengoa oso garrantzitsua bada ere, arlo horretan lan handia egin da, eta euskararen erabilera ia egoera guztietan bermatzen da. Horregatik, arreta batez ere laneko hizkuntzan jarri da.

Dena dela, bezeroekiko harremanari dagokionez, urtero bezala, webgunearen edukia errepasatu da, eta bi dokumentu euskaratu dira.

Gainera, euskararen erabileraren kalitatea hobetzera bideratutako bi prestakuntza-ekintza egin dira: itzultzaile neuronalari buruzkoa, batetik, eta ohiko akatsak zuzentzeko aholkuei buruzkoa, bestetik. Lehenengoan 2 saio egin ziren, eta 81 pertsonak parte hartu zuten guztira. Ohiko akatsen saioa B2 mailako edo goragoko pertsonentzat izan zen, eta hiru saiotan banatu zen. Saio horietan 21 pertsonak parte hartu zuten.

Goian esan bezala, plana batez ere lan-hizkuntzan oinarritu da, eta, bereziki, barne-komunikazioan eta lan-tresnetan. Ekintza nagusiak sailetan ezarritako hobekuntza-helburuak dira. 4 taldetan egin da egungo egoeraren diagnostikoa eta hura hobetzeko ekintzei buruzko hausnarketa: Hezkuntza, Osasuna, Gobernantza eta Platea. Talde horietan maila desberdinetako helburuak zehaztu dira (idazki informaletan euskara erabiltzeko konpromisoa, kide batzuen artean euskaraz hitz egiteko konpromisoa), baita helburuen jarraipena egiteko maiztasuna ere.

Gainera, lehen aldiz euskararen erabilera neurtu da ohiko mezu elektronikoetan, Gure Artean berripapera berreskuratu da bere bertsio digitalean, euskararen eguna antolatu da, astean behingo "pilulak" argitaratu dira eta ordu erdiko Berriak berri solasaldiak jarri dira abian, ostegunetan.

Egin ez direnen artean, Euskararen Plan Estrategikoa ez onartzeak du eragin handiena kudeaketa-planean. Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen dekretua ere ez da onartu, eta horrek EJIEren Plan Estrategikoaren onarpena atzeratzea eta zailtzea dakar.

Hurrengo urterako erronka nagusiak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- SAILETAKO HOBEKUNTZA-PLANEN JARRAIPENA ETA ZABALKUNDEA EGITEA.
- BESTE BI PRESTAKUNTZA-SAIO ANTOLATZEA.
- EUSKARALDIAN PARTE HARTZEA.





# GOBERNU DIGITALA

Ondorengo grafikoetan, Eusko Jaurlaritzaren plataformaren bidez zerbitzu elektronikoak erabiltzeko adierazle nagusien bilakaera jasotzen da –

PLATEA -- 2021. urtean zehar.

2021ean, Batera-ko datacenterreko kargen migrazio masiboko metodoetan oinarrituta eta aldez aurretik egindako kontzeptu-probetan definituta, Administrazio Elektronikoko tresna eta azpiegitura komunen migrazioa osatu da (Tramitazio elektronikoa egoitza elektronikoan – PLATEA Teletramitazioa; Langile publikoen izapidetze elektronikoa kudeatzeko tresnak – Tramitagune; Dokumentu-kudeaketako sistema integrala – Dokumentu-edukien kudeaketako informazio-sistema – DOKUSI) Datacenter berriaren azpiegituran.

Migrazio horri esker, azpiegitura horiek gero eta gehiago erabiltzen dira, eta Batera-ren beraren erabilera errentagarria da. Horrez gain, errazagoa da Platea plataformaren bilakaerari eustea (berrikuntza teknologikoa) eta haren ustiapena sinplifikatzea.

www.euskadi.eus webgunearen azpiegiturari dagokionez, azpiegitura Batera-ra migratzeaz gain, buru-belarri lan egin da azpiegitura osatzen duten aplikazioak modernizatzen, eta horrek esan nahi du aplikazio horien berringeniaritza teknologikoa egin behar izan dela, edukiontzi-inguruneetan exekutatzeko. Horrela, erresilientzia handiagoa lortu da eskaera handietarako, eta Platea Web-eko informazio-sistemen eragiketa sinplifikatu da. 2021ean, edukiontzien azpiegituran, osagai asko hedatu dira (Atarien Kudeatzailea, Katalogazio Etiketak, Direktorioa, etab.), eta Edukien Kudeatzailearekin lanean hasi dira. Gainera, Batera-n ingurune berri bat sortu da Konbergentzia arloan, hasiera batean Justizia Administrazioaren ataria (www.justizia.eus) eboluzionatzeko ekimenak erabiliko duena, baina epe ertainean Eusko Jaurlaritzaren Administrazioaren eta bere sektore publikoaren web-presentzia osoari zerbitzua emango diona.

Eremu horretan nabarmentzekoa da www.euskalmet. euskadi.eus webgunea berritzeko proiektua. Guztiz eguneratu da www.euskalmet.euskadi.eus webgunea.

Webgune hori datu irekien arabera eratu da. Hau da, paradigma tradizionala alderantzikatu da, eta lehenik eta behin datuak ireki dira, eta horietan oinarrituta webgunea berreraiki eta berritu da.

Euskalmet
AGENCIA VASCA DE METEOROLOGÍA

## WWW.EUSKADI.EUS WEBGUNERA EGINDAKO BISITEN DATUAK, EUSKO JAURLARITZAREN EGOITZA ELEKTRONIKORA EGINDAKO BISITEN DATUAK ETA NIRE KARPETAREN ERABILERAREN DATUAK

### Euskadi.eus

euskadi.eus




### Egoitza elektronikoa

sede electrónica



## Nire karpeta




## Herritarrek egoitza elektronikoan izapidetutako eskari elektronikoen kopurua




## www.euskadi.eus atarien sarean kudeatutako edukien kopurua




## www.euskadi.eus egoitza elektronikoan izapidetutako eskari elektronikoen kopurua



## Euskal administrazioen arteko datu-bitartekaritzaren erabilera **Datuen Bitartekaritzarako Plataformaren bidez – NISAE–**




## Herritarrek egindako identifikazio- eta sinadura-eragiketa elektronikoen kopurua




## EAEko Administrazioen Ordainketa Pasabidea

**Zenbatekoa, guztira**




**Eragiketa-kopurua**




## Platea Tramitagune plataformako sinadura elektronikoko eragiketen kopurua





# Berrikuntza eta **ZAINTZA TEKNOLOGIKOA**

## ZAINTZA TEKNOLOGIKOA: *IPARRAREN BILA*

*Etorkizunerako prest egoteko alternatibak ezagutzea*

Helmugara iristeko, ezinbestekoa da norabide bat markatzea. Norabideak bidean orientatzen laguntzen du, eta zorroztasunak bidean ez galtzeko beharrezko tresnak ematen ditu. EJIEn, zaintza teknologikoa beste prozesu bat da konpainiaren kudeaketa aurreratuko plan zuzentzailearen barruan. Funtsean, jarduera definitua, antolatua, planifikatua, kudeatua eta neurtua da, bere helburu eta adierazleak dituena.

Teknologia gaitzailea bilatzea gure DNAren jarraibide genetikoetan txertatuta dago.Hegaztiak migrazio-faseetarako prestatzen dira, eta gu teknologien bila arituz prestatzen gara, berrikuntzak markatzen digun iparra finkatzeko asmoz. Azkar asmatzearen eta huts egitearen garrantzia barneratu dugu. Neguaren gertutasuna sentitzen duen lertxuna gara, "tempus fugit"aren errealitate gupidagabearen aurrean jardun behar duena.

## 2021EKO NORABIDEA

*Konturatu gabe, gero eta gizarte digitalagoa bihurtzen ari gara. Digitalak gara aisialdian, gizarte-harremanetan eta, nola ez, gure lan-jardunean. Jon Maiak zioen bezala; "digital bihurtu den kantu bat gara".*

Hauek izan dira aurten ebaluatu diren eta potentzialki digitalagoak izatea ahalbidetuko diguten teknologietako batzuk:

- BOTO ELEKTRONIKOA.

  Ez da kasualitatea ekintza jakin batzuk aurrez aurre egiten jarraitzea. Gaur egun botoa da horietako bat. Botoa modu digitalean emateko eskubidea eman ahal izateko, beharrezkoa izango litzateke hainbat alderdi bermatzea, hala nola egintzaren egiazkotasuna, botoaren osotasuna, prozesuaren trazabilitatea, eta abar. Gaiaren gaineko teknologiaren eta esparru arautzailearen hurbilketa bat egin da.

- ANONIMIZAZIOA.

  Datuak edukitzea bezain garrantzitsua da datu horiek erabili ahal izatea. Datu aberatsek, normalean, datu horiek sortu zituzten pertsonen ezaugarriak jasotzen dituzte, bai haien identitatea (izenak, abizena, NANa) jasotzen dutelako, bai beren bizi-egintzak deskribatzen dituztelako. Hala ere, Adimen Artifizialak datu horiek behar ditu datu horietatik "ikasi" ahal izateko, laguntza-tresnak eraikiz, hala nola gaixotasunen detekzio goiztiarra edo arazoen diagnostikoa egite aldera. Anonimizazioa datu pertsonalak detektatzeko eta ordeztu ahal izateko teknologia da. Horretarako, edukiaren koherentziari eusten dio, eta datu erabilgarriak lortzen ditu, datu horiei dagokien pertsona babestea bermatzeko.

- URRUTIKO KONTROLA 5G BIDEZ.

  Sareko teknologiako belaunaldi desberdinek (2G, 3G, 4G...) ezaugarri berriak eman dizkiote mugikorrari. Zehazki, 5Gak ematen duen gauzetako bat latentzia baxua eta bermatua da. Latentzia sarea erabiltzen duen eragiketa baten erantzuteko denbora da. Zer gertatzen da Internet bidez hitz egiten dugunean datuen konexio onik ez daukaten guneekin? Hiztunen artean sinkronizaziorik ez dagoenez, elkarrizketak korapilatsuak dira. Komunikazioak modu autonomoan makinen artean egiten diren kasuan kaosa are handiagoa da. Kontzeptu-proba honetan, 5G bidez urrutiko kontrol batekin konektatutako beso robotiko bat hainbat kokapen fisikotatik mugitzen probatu da.

- $CO^2$-REN NEURKETA IOT BIDEZ.

  Koronabirusak gure inguruan aire osasuntsua izatearen garrantzia erakutsi digu. Ez gara jabetzen, baina bilera-gelek itotzeko joera dute, arnasketa hutsagatik. $CO^2$-a milioiko partikulatan neurtzen da, eta kalitate eskaseko aireak eragin negatiboa du guretzat. Baina konponbide errazeko arazoa da: aireztapena bezain sinplea, ate edo leiho bat irekiz egin daitekeena. Baina, zelan jakin noiz dagoen arazo bat? $CO^2$ neurtzeko sentsoreak zabaldu dira Itelazpik emandako LoRa sarea erabiltzen duten eremu komunetan, koloretako semaforo bat izateko.

## ETORKIZUNEKO PROIEKTUAK

- BIGARREN FAKTOREAREN AKTIBAZIOA, BIOMETRIA BIDEZ, ARRETA ZENTROKO ERAGIKETETAN ERABILTZAILEA:

  Telefono mugikorra modu seguruan eman nahi da, bideokamera erabiliz, nortasun-agiria aurkezteko.

- ESKARIEN KONTROLA, ISTIO ERABILIZ, ZERBITZU PUBLIKOETAN:

  Eskaeren kontrola egin da, zerbitzu-mailak ezarriz, adibidez, abusua kontrolatzeko ip zehatzetatik; x eskaera minutuko.

- ZERBITZU OROKORRAK KONTROLATZEKO TRESNAK:

  Datacenterraren soluzio energetikoak eta klimatizaziokoak digitalizatzeko bidean aurrera egin da.

- ITZULI-N TRANSKRIPZIOA ETA LABURPENA SARTZEA:

  Speech2Text (transkripzioa) eta Text2Speech (laburpena) funtzionaltasunak sartu dira Itzulin.

- WALLET DIGITAL:

  DID estandarrean oinarritutako mugikorraren ekosisteman egiaztagiri digitalak aztertu dira

- AGIRIAK AUTOMATIKOKI AURKEZTEKO SISTEMA:

  Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko prozesuetan hizkera naturalaren prozesamendua sartu da.




# ADMINISTRAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK

Plantilla
**2021-12-31n**



## BARNE-KOMUNIKAZIOKO plana

Plan horretan planifikatutako

**% 93.55**

jardueren betetzea lortu da.

## JARDUNAREN EBALUAZIO plana

Betetzea

**18** pertsona

10 emakume eta 8 gizon

Horrek esan nahi du ebaluatutako langileen **% 9,5 lanbide-mailaz** igo direla prozesu horretan, ordainsari-maila edo lanbide-profila aldatu izanaren ondorioz.

## URTEKO PRESTAKUNTZA plana

**1044** partaide

% 46,55 emakumeak,
% 53,44 gizonak

Prestakuntzako ordu erdi pertsonako

**30,16** ordu

**68** prestakuntza-ekintza

Prestakuntza-orduak guztira

**6.286** ordu

% 50 emakumeak
% 50 gizonak

**FUNDAE**k 2020ko prestakuntza-planari emandako laguntza posible guztiak lortu dira, prestakuntzaren arloko kreditu bat osorik berreskuratuta 39.075,19€-ko zenbatekoan; halaber, laguntza osagarriak ere eskuratu dira, hura finantzatzeko, **HOBETUZ**ek emanda.

Fundación Estatal
PARA LA FORMACIÓN EN EL EMPLEO

HOBETUZ

# EJIEko BERDINTASUNAREN ALORREKO EKINTZA plana

V. Berdintasun Planaren (2021-2023) jarraipenaren arabera, planaren betetze-maila honako hau zen 2021-12-31n:

**% 41,93**

2021erako planifikatutako 16 jardueretatik 12 egin dira, eta honako hauek nabarmendu behar dira, besteak beste, jarduera jarraituak barne:

2021ean EJIEk aktiboki parte hartu du BaiSarean, beste erakunde batzuekin batera sarearen talde eragilea osatuz eta sareko batzarretan parte hartuz, baita berdintasunaren arloko jardunbide egokiak emanez ere.

- **Telelanaren gaineko** proposamen bat egin da.
- Iradokizunen dokumentua berrikusi da, EJIEko pertsonen kontziliazio-beharrak gehiago errespetatzeko, eta berariaz aztertzeko zer neurri dauden langileek prestakuntzan parte hartzen dutela bermatzeko, kontziliazio-neurriekin, eta, hala badagokio, neurri horiei hobekuntzak proposatzeko.
- Berdintasunaren arloko prestakuntza eman da: langile guztiei, hizkera ez-sexistari buruzko prestakuntza; rol espezifikoak dituzten pertsonei gatazkak kudeatzeko eta jazarpen-kasuak tratatzeko aholkularitza konfidentziala; eta erakundean lidergo-rola duten pertsonei genero-ikuspegidun lidergoari buruzko prestakuntza.
- Ordainsari-erregistroari eutsi zaio, eta soldata-arrailaren azterketa egin, Baisarean horretarako prestatutako tresnaren arabera.
- Adierazle berriak definitu dira, etorkizuneko azterketa diagnostikoetan sartzeko.
- Jardunbide egoki berriak ezartzeko eta aurreko berdintasun-planetan ezarritako beste batzuk mantentzeko ekintzak egin dira, pertsonak kudeatzeko prozesuarekin lotuta, hala nola barne-komunikazioa, prestakuntza eta langileen hautaketa bezalako gaietan, eta pertsonak kudeatzeko prozesuaren edozein berrikuspenetan edo horien prozeduretan genero-ikuspegia bermatzea xede duten ekintzak egin dira.
- Jardunbide egoki berriak ezartzeko eta aurreko berdintasun-planetan ezarritako beste batzuk mantentzeko ekintzak egin dira, laneko segurtasun, osasun eta ongizatearen sistemarekin lotuta, eta, zehazki, mugikortasun-planarekin, lan-arriskuen ebaluazioekin, osasun mentala sustatzeko programarekin, muskulu-lesio eskeletikoak prebenitzeko programarekin, arrisku kardiobaskularrak prebenitzeko programarekin, arrisku psikosozialei buruzko inkesta egitearekin, osasunaren edozein gairi buruzko sexuaren arabera bereizitako adierazleak mantentzearekin, osasuna zaintzeko analitikekin, jarduerak koordinatzeko prozedurarekin eta laneko segurtasun, osasun eta ongizatearen sistemaren edozein aldaketarekin lotuta.
- Aurreko berdintasun-planetan ezarritako jardunbide egokiei eusteko ekintzak egin dira, berdintasuna sustatzeko klausulak txertatzen direla, langileak hautatzeko zerbitzuen kontratazioan berdintasun-klausula espezifikoak sartzen direla eta kontratazio-prozesuaren edozein aldaketatan genero-ikuspegia kontuan hartuko dela bermatze aldera.
- Informazio eta Telekomunikazioen zuzendariaren 03-2018 zirkularra betetzen dela bermatzeko ekintzak egin dira.
- Zerbitzuen katalogoaren edozein berrikuspenetan genero-ikuspegia kontuan hartuko dela bermatzeko lan egin da.
- Berdintasunerako V. Plana zabaldu da.
- Erakunde laguntzailearen izaera aitortzen jarraitu da.
- Estatutu sozialen etorkizuneko berrikuspenetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bermatzeko lan egin da.
- Emakunderen emaitzak ebaluatzeko egindako urteko galde-sortako emaitzen ebaluazioa egin da.
- Etorkizuneko plan estrategikoetan berdintasunarekin lotutako adierazle estrategikoak egiteko proposamena egin da, eta plan estrategikoetan eta kudeaketa-planetan genero-ikuspegia sartzea bermatu da.
- EJIEren partaidetza duten eta genero-berdintasunarekin lotuta dauden proiektuen barne-zabalkundea egin da.
- Baisarean parte-hartze aktiboa sustatu da, batzarretara joanez, lantaldeetan parte hartuz eta jardunbide egokien berri emanez.
- Politiken edo jokabide-kodearen edozein berrikuspenetan genero-ikuspegia kontuan hartzen dela bermatu da.

# LANEKO SEGURTASUN, OSASUN ETA ONGIZATEKO plana

2021erako laneko segurtasunaren, osasunaren eta ongizatearen arloan aurreikusitako 38 jardueretatik **30** egin dira, pandemiak eragindako egoera dela eta. Horren ondorioz, jarduerak lehenesteko lana egin behar izan da, Covid 19ren eraginpean egoteko arriskuaren aurrean prebentzio-neurriak hartzeko ahaleginak egin behar izan baitira.

Egindako jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira:



2021ean in itinere istripu bat izan da baja medikorik gabe, eta gaixotasunagatiko absentismo-indizea % 2,28koa izan da.

- ISO45001 arauaren ziurtagiria lortu da.
- Osasuna sustatzeko programa berriak garatu dira arrisku kardiobaskularraren prebentzioaren, lesio muskulu eskeletikoen prebentzioaren eta ongizate psikologiko eta emozionalaren esparruetan. Horietan 40 pertsonak (22 emakume eta 18 gizon) parte hartu dute, eraginkortasun handiarekin. Hala, arrisku kardiobaskularra parte-hartzaileen %100ean murriztu edo mantendu da, partaideen % 73,33an murriztu dira muskulu eta hezurretako minak, eta % 100eko asebetetze-maila lortu da ongizate psikologiko eta emozionalaren programan.
- Koronabirusarekiko esposizioaren arriskuetarako kontingentzia-plan bat eguneratu (19. bertsioa, 2021ean) eta ezarri da, hainbat eremutan prebentzio-neurriak ezartzearekin (higienikoak, antolamendukoak, komunikaziokoak, testak egitekoak, norbera eta taldea babestekoak, etab.), komunikazio-plan batekin eta informazio-kanpainarekin batera. Horren baitan, 80 komunikazio-mugarri lortu eta Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen 28 bilera egin dira.
- Prebentzio-jarduera koordinatzeko prozedura mantendu eta hobetu da.
- Larrialdietako taldea berrantolatu da, eta lehen sorospenen simulakroa egin da.
- Tabakoa erretzeari uzteko kanpaina bat garatu da.
- Prestakuntza eman da ibilgailu motordunetan modu seguruan gidatzeari eta bizikleta erabiltzeari buruz.
- Aholkularitza konfidentzialari prestakuntza eman zaio.
- Telelaneko proposamen bat egin da.
- Prestakuntza eman da estres-eskolan, gatazken kudeaketan, sinergologian eta hitzik gabeko komunikazioan.
- Lan-espazioak berrantolatu eta langileak birkokatu dira, bai eta solairuen araberako sarbideak kontrolatzeko mekanismoak instalatu ere.
- Absentismoa QEPEArekin alderatu da.
- EJIEk enpresa osasungarri gisa duen irudiari buruzko galderak txertatu dira interes-talde desberdinei egindako inkestetan.
- Norbera babesteko ekipamenduen mantentzea eta kontrola automatizatu dira.
- Presentzia bikoitzaren kontzeptuari buruzko tailer bat egin da.

# Akordioak
# ENPRESA BATZORDEAREKIN

2021ean, akordio hauek lortu dira Zuzendaritzaren eta Enpresa Batzordearen artean:

### TELELANA ETA MALGUTASUNA

Telelanaren modalitatea ezartzeko eta lan presentzialaren modalitatean sartzeko eta irteteko malgutasun handiagoa izateko hainbat akordio, bai eta lanaldi jarraituaren modalitatera aldatzeko aukera ahalbidetzeko ere, koronabirusaren eraginpean egotearen arriskuagatiko prebentzio-neurri gisa.

### ORDAINSARIEN IGOERAK

Ordainsarien igoerei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiekin bat etorriz, 2021eko otsailaren 16ko ordainsariei dagokienez, 2020-12-31n indarrean zeuden ordainsari-taulen % 0,9ko igoera adostu zen 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

### ITZARRIRAKO EKARPENA

Gizarte-aurreikuspenaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiekin bat etorriz, Itzarriri 2020ko abenduaren 29an egindako ekarpenei dagokienez, enpresak Itzarriri egingo dion ekarpena % 2koa izatea erabaki zen, 2020ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin.

# HARRERA-plana

Plan hau hedatu da honako hauei harrera egiteko: 2021ean plantillan sartutako 15 pertsona (5 emakume eta 10 gizon), lanpostua gordetzeko eskubidea egikaritzeagatik lanera itzuli den langile bat, iraupen mugagabeko 9 txanda-kontratu, 4 kontratu mugagabe eta aldi baterako 2 kontratu eszedentzia bana betetzeko, lanpostua gordeta.





# NEGOZIOARENTZAKO BABESA

# ERABILTZAILEEI ARRETA
## emateko zerbitzuak



- Eusko Jaurlaritzaren Erabiltzailearen Arreta Zentroan jasotako deiak nabarmen jaitsi dira, batez ere COVID-19ak eta telelanak eragindako krisiaren ondoren "normaltasunera itzultzearen ondorioz".

### Eskainitakoak




### Erantzundakoak




- Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzailearen Arreta Zentroa eta Izenperen Erabiltzailearen Arreta Zentroa. Eusko Jaurlaritzak eta EAEko beste administrazio publiko batzuek herritarrekiko harremanetan egindako digitalizazio-estrategien aurrerapenek nabarmen egin dute gora; izan ere, Izenpek funtsezko hornitzaile gisa jarduten du Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Elektronikoen EAZren jarduera-datuen autentifikazio- eta sinadura elektronikoko estrategietan.
- Eusko Jaurlaritzako zerbitzu elektronikoei dagokien CAUren jarduera-datuak

### Eskainitakoak




### Erantzundakoak




## IZENPEREN EAZ-REN JARDUERA-DATUAK

### Eskainitakoak




### Erantzundakoak



# HEZKUNTZA ETA ARLO SOZIOSANITARIOKO Zuzendaritza Teknikoa

## LURRALDE-PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK

Adimen Artifizialeko teknikak aplikatuz dokumentuetan jasotako datuak atera dira.

Administrazio-espedienteak izapidetzeko prozesuak berekin dakar, ia kasu guztietan, dokumentu asko tratatzea eta aztertzea. Informazioa jasotzen duten dokumentuetatik abiatuta behar den informazioa lortzeko, egituratu gabeko datuen formatuan, eskuzko prozesu bat egin behar da, hau da, dokumentua irakurri, datua aurkitu, eta, gainera, ondoren informazio hori prozesatuko duen informazio-sisteman erregistratu eta tratatu. Hori batzuetan prozesu luze batean gertatzen da, eta, zenbaitetan, informazio horren eskuzko tratamenduak huts egiten du.

Datu esanguratsu bat:

Durante el período
**01/01/2020** etik
**01/09/2020**era bitartean,

**+29.000 dokumentu**

bildu ziren etxebizitzak birgaitzeko laguntzen espedienteetarako.

Adimen Artifizialaren arloan (Artificial Intelligence, AI), eta, zehazki, hizkuntza naturalaren prozesamenduaren eremuan (Natural Language Processing, NLP) egindako aurrerapenei esker, ikaskuntza automatikoko algoritmoen aplikazioan edo makinen ikaskuntzan oinarrituta (Machine Learning, ML), besteak beste, lortu ahal izan da testu baten hizkuntza identifikatzea, gai nagusia sailkatzea, eta bertan jasotako zenbait datu kokatu eta lortzea.

Lehen hurbilketa batean, esportatu ahal izango den sistema bat garatu da, tipifikatutako zenbait dokumentutatik automatikoki ateratzeko bertan dauden datu interesgarriak. Horrela, izapidegile batek ere ez du dokumentu hori arretaz irakurri behar beharrezko informazioa biltzeko. Emaitza horiek lortu ahal izateko, tratatu beharreko dokumentu-tipologia bakoitzeko, aldez aurretik sistema entrenatzeko prozesu bat egin behar izan zen (gainbegiratutako ikaskuntza), eta, horretarako, atera beharreko datuak "markatuta" dituen dokumentu-kopuru nahikoa erabili behar izan zen.

## OSASUNA

### ■ COVID-19AREN ONDORIOZKO LAN OROKORRAK

2021ean zehar, pandemiaren ondorioz, eboluzio handiak garatu dira dagoeneko Sailari zerbitzua ematen zioten sistemetan. Laburbilduz, sistemak honakoetarako prestatu behar izan dira:

- OTIrekin informazioa gurutzatzeko, herritarrak adin-tarteen arabera segmentatu eta horiei txertoa emate aldera
- Covid-19 txertoen kargak egiteko, bai Osakidetzatik, bai erakunde pribatuetatik
- Txertoak eta Covid-19 kasuak Ministeriora bidaltzeko, estatu-mailako informazio estatistiko agregatua lortze aldera
- Proba negatiboa sortzeko eta ziurtagiria laborategi pribatuei emateko
- Osasun-karpetarekin integratzeko, emandako ziurtagiriak erakuste aldera

## COVID Ziurtagiri Digitala

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/953 (EB) Erregelamendua, 2021eko ekainaren 14koa, COVID-19aren pandemian zirkulazio askea errazteko txertaketa, proba diagnostiko eta errekuperazio ziurtagiri elkarreragileak (EBren COVID ziurtagiri digitala) egiteko, egiaztatzeko eta onartzeko esparruari buruzkoa.

Dokumentu hori Europar Batasunaren barruan ibilbide bat egitera joango zen pertsona bati bidaia errazteko ezarri zen arren, herrialde bakoitzak eta, Espainiako estatuaren kasuan, erkidego bakoitzak hasieran ezarritakoaz bestelako jardueretarako erabiltzeko betebeharra ezar zezakeen. EAEren kasuan, 2021-12-04tik aurrera, ostalaritzan, diskoteketan, jai-aretoetan, eta abarretan covid-ziurtagiria aurkezteko betebeharra ezarri zen.

EAEn, 2021-06-09tik aurrera hasi ziren ziurtagiriak ematen, eta pixkanaka irtenbide bat garatu zen herritarrek hiru ziurtagiri-mota horiek (txertoa/errekuperazioa/proba negatiboa) hiru sarbide-metodorekin eskatu ahal izateko.




2021ean, 2.500.000 ziurtagiri baino gehiago eman ziren, eta horietatik % 95 baino gehiago txerto-ziurtagiriak eta ziurtagiri telematikoak izan ziren.

| HILABETE | PROBA NEGATIBOA | | ERREKUPERAZIOA | | TXERTOA | | GUZTIRA, ORO HAR |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aurrez aurrekoa | Telematikoa | Aurrez aurrekoa | Telematikoa | Aurrez aurrekoa | Telematikoa | |
| Ekaina | - | 8.319 | 542 | - | - | 139.494 | 148.355 |
| Uztaila | 385 | 12.002 | 11.725 | 187 | 6.785 | 438.486 | 469.570 |
| Abuztua | 339 | 7.026 | 10.187 | 421 | 7.188 | 269.833 | 294.994 |
| Iraila | 93 | 1.850 | 5.737 | 150 | 5.226 | 122.414 | 135.470 |
| Urria | 31 | 803 | 3.701 | 103 | 2.953 | 62.546 | 70.137 |
| Azaroa | 42 | 1.543 | 3.768 | 75 | 6.853 | 259.129 | 271.410 |
| Abendua | 137 | 8.692 | 11.821 | 365 | 20.542 | 1.080.378 | 1.121.935 |
| Guztira | 1.027 | 40.235 | 47.481 | 1.301 | 49.547 | 2.372.280 | 2.511.871 |

## HEZKUNTZA

### AC94A – IKASTURTE HASIERA BERRIA

Ikasturte hasierarako hautagaien aukerak jaso eta aurkezteko web-aplikazio berria

Aplikazioak hautagaiaren lehentasunak arin eta erraz antolatzeko eta ezartzeko aukera ematen du, bai plaza-mailan, bai lurralde-mailan. Gainera, aukeren zirriborroak eta bertsioak gordetzeko aukera ematen du, behin betiko eskaera egin aurretik.

### DBH ETA BATXILERGOKO IKASLEENTZAKO EKIPO AMANGARRIAK

2021eko irailean, DBH eta BATXILERGO etapetako ikastetxe publikoetako ikasleei ekipo eramangarriak ematen hasi ziren, eta lehenetsi egin zen Batxilergoko Lehen Mailako ikasleei lehen fasean ematea, eta, bigarren fasean, gainerakoei, ikastetxeka. Zentroei ekipoen oinarrizko teknologia hautatzeko aukera eman zitzaien, hau da, WINDOWS sistema eragilea edo CHROME OS sistema eragilea.



**19.213**

**ENTREGATUTAKO EKIPOAK**

2021eko iraila eta abendua bitartean

**6.190**
Google Chromebook/Chrome OS

**13.023**
Microsoft W10

## LANA ETA ENPLEGUA

### AHOLKULARITZA ETA DIAGNOSTIKOA LANBIDEREN ERALDAKETA DIGITALARI BURUZ

Hamar urteko funtzionamenduaren ondoren, Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) egokitzat eta beharrezkotzat jo du gogoeta orokor bat egitea bere erantzukizunak gauzatzeko duen testuinguruari buruz, kudeaketaren errealitateari eta kalitateari buruzko ondorio sendoak lortzeko. Ondorio horiei esker, Lanbideren giza baliabideek eta baliabide teknikoek zerbitzuaren maila ezin hobea lor dezaten egokitzat jotzen diren era guztietako ekintzak planifikatu ahal izango dira, helburuak lortze aldera. Zeregin horretarako, Erakundearen zerbitzuen ekarpen egokiez gain, errealitate horri buruzko azterketa arrazionala eta teknikoki kualifikatua egin behar izan da, haren bertute eta ahuleziei buruzkoa, eta, horren ondorioz, egokitzapen-proposamen bat egin da, dauden baliabideak garatu beharreko prozesuetara egokitzeko aukera emango duena, bere erantzukizunak ahalik eta ondoen betetzeko.

## BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

### 3 ETA 14 URTE BITARTEKO ADINGABEAK ZAINTZEKO KONTRATAZIOAGATIKO KONTZILIAZIO-NEURRIAK

(COVID 19AREN ONDORIOZKO SALBUESPEN-NEURRIA)

Sailak, COVID19ak sortutako salbuespenezko egoera dela eta, familia eta lana bateragarri egiteko ezohiko laguntza-lerro berri bat abiarazi zuen. 2020-2021 ikasturtean 3 eta 14 urte bitarteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko dirulaguntza ematen duen proposamena da. Horretarako, Familien eta Haurren Zuzendaritzak 3 milioi euro bideratu zituen.

# OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO
Zuzendaritza Teknikoa

## OGASUNA

KONTRATAZIO PUBLIKOKO APLIKAZIOEN BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

### KontratazioA plataforma

KontratazioA plataforma berriaren azterketa, diseinua eta garapena

- IZAPIDEAK ETA LIZITAZIOA

KontratazioA plataforma izapidetzeko tresna berriaren garapena.

Hobekuntza nagusiak:

Hobekuntza diseinuan eta erabilgarritasunean

Datuaren erregistro bakarra

Sinpletasuna izapidetze-prozesuan: loteen kudeaketa, klausula bereziak, prezio unitarioak, eta abar.

Integrazioa Eusko Jaurlaritzako zerbitzu horizontalekin: Giltza, Dokusi, Plateako jakinarazpenak, eta abar.

Interkonexioa Estatuko eta Europako erregistroekin eta plataformekin:

Estatuko Kontratisten Erregistroa (ROLECE), Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroa (ROC) + Euskadiko Enpresen Sailkapena (CLA), Euskadiko Ahaldunen Erregistroa (RdA), Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala (DOUE)

Datuaren trazabilitatea

Euskadiko ahalordedunak

- PUBLIZITATEA ETA GARDENTAS

Publizitaterako eta Gardentasunerako tresna berria garatzea, aurreko plataforman dagoen funtzionaltasunean oinarrituta:

Iragarkien eta kontratuen argitalpena

Iragarki eta kontratuen bilaketa

OpenData informazioa espediente eta kontratuei buruz

Espedienteei eta kontratuei buruzko nazioarteko gardentasunari buruzko informazioa

Informazio hori ustiatzeko widgeten garapena

| | |
|---|---|
| Ahalorde esleitzaile integratuak | 781 |
| Argitaratutako iragarkiak (argitalpenak) | 138.109 |
| Argitaratutako espedient | 68.018 |
| DOUEn argitaratutako iragarkiak | 2.558 |
| Argitaratutako kontratuak | 77.596 |
| Argitaratutako kontratuen artean txikiak diren | 70.533 |
| Erabiltzaile integratuak | 5.235 |
| Elektronikoki lizitatu daitezkeen espedienteak | 5.024 |
| Eskaintza elektronikoak jaso dituzten espedienteak | 3.676 |
| Elektronikoki jasotako beste eskaintza batzuk | 16.487 |
| Espedienteei lotutako interesdunak | 41.152 |
| Espedienteei lotutako enpresa interesdunak | 5.065 |
| FAhalordeen prestakuntzako ikastaroak | 113 |
| Ahalordeen prestakuntzako ikasleak | 2.173 |
| Enpresen prestakuntzako ikastaroak | 36 |
| Enpresen prestakuntzako ikasleak | 734 |

## EIKA (ekonomia, informazio, kudeaketa eta aurrekontu sistema)

2021ean, Gobernuaren esparru ekonomikoko aplikazioak ordeztu ziren (IKUIS, aurreratutako funtsak, kudeaketa-mikrobaseak, aurrekontua, abalak, gordailuak eta bermeak, etab.), eta, horren ordez, HANA datu-basea duen SAP S/4 plataforman oinarritutako EIKA sistema eta aurrekontu-zatirako sartutako BPC modulua jarri ziren.

Horrez gain, Informazio Zentrala modulua sartu da, Legebiltzarrari kontuak emateko, Ogasun Ministerioari informazioa bidaltzeko eta EAEko eremu publikoko sozietateen informazioa ustiatzeko, bai eta hiru hilean behin jarraipena egiteko eta likidazio-aurreikuspena egiteko ere.

Era berean, Legebiltzarrak zuzenketen kudeaketaren tramitazioa sartu du EIKA sisteman.

## Funtzio publikoaren sailburuordetza (EIZU)

### ERTZAINTZAKO GARAPEN PROFESIONALA

Segurtasuneko kolektiboaren Ertzaintzaren lanbide-garapeneko proiektua amaitu eta abiarazi da, dagokion balorazioarekin.

### LAN-POLTSAK

Administrazio Orokorreko eta Justizia Administrazioko kolektiboentzako eskaintzen kudeaketa telematikoa abiarazi da.

| | *Administrazio Orokorra* | *Justizia Administrazioa* |
|---|---|---|
| *Eskaintzen hasiera-data* | **05/02/2021** | **31/05/2021** |
| *Egindako eskaintzak* | **242** | **79** |
| *Eskainitako espedienteak* | **2.658** | **409** |
| *Pertsona eskaintzaileak* | **115.315** | **7.980** |
| *Jasotako eskaerak* | **32.913** | **312** |

# Zuzendaritza tekniko **SEKTORIALA ETA PROFESIONALA**

## TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

2021ean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak bere jarduerarik nabarmenetako bat egin du laguntzen prozedurak izapidetzean.

Sailak eskumena duen sektoreetan berreskuratze-, profesionalizatze-, berrikuntza- eta jasangarritasun-prozesuak gidatzeko misioari erantzuten dioten laguntzak eman dira.

Ezohiko paketeei dagozkien laguntzak eman dira, covid-19aren pandemiak sektore horietan bertan eragindako krisi ekonomikoaren eragina arintze aldera.

EJIEko Laguntza Teknikoko taldeak, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzarako eta Merkataritza Zuzendaritzarako, laguntza-prozedura hauek abian jartzeko euskarri-lanak egin ditu:

### TURISMOA

| | | |
|---|---|---|
| **CTP** | Merkaturatze turistikorako eta sustapenerako laguntzak | **717.000** |
| **EMET** | Turismo-enpresen ekintzailetza babesteko eta haien lehiakortasuna hobetzeko laguntzak | **652.000** |
| **GAUHOST** | Euskal Autonomia Erkidegoko gaueko aisiarako establezimenduen titularrentzako laguntzak | **12.600.000** |
| **PTT** | Turistimorako lurralde-proiektuentzako laguntzak | **1.450.000** |
| **SOSTUR** | EAEko sektore turistikoari eusteko laguntzak | **10.700.000** |

### MERKATARITZA

| | | |
|---|---|---|
| **HIRIGUNE** | Hiri-merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasunerako eremukako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa | **1.770.000** |
| **EPERCOM** | Merkataritzako ekipamendu pertsonalaren azpi-sektoreari eusteko laguntzak | **15.800.000** |
| **MEC** | Merkataritza-establezimenduak modernizatzeko babesa | **3.350.000** |
| **OTC** | Merkataritza-bulego teknikoentzako babesa | **1.920.000** |

*Laguntza* GUZTIRA **48.959.000** €-ko *aurrekontua*

## SEGURTASUNA

Euskalmeten webgunea. Teknologia berri bat da (open data), non sentsore, buia, neurketa-aparatu berezi eta datuak biltzeko zerbitzarien bidez meteorologiari buruz jasotzen den informazio guztia webgunean islatzen baita, eta, gainera, edozein erakunde edo pertsona interesduni eskaintzeko gai baita, open datan argitaratutako datuak eskaintzen diren bezala.




## INGURUMENA

### EUSKADIKO NATURAREN INFORMAZIO-SISTEMA

Duela denbora bat, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren eremuan (2002-2020) eta estrategia horren esparru-programetan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak EAEko Biodibertsitatearen Behatokia sortu zuen, biodibertsitatearen arloan sakabanatuta zeuden dokumentu-iturri eta datu-bankuak biltzeko. Bide horri jarraituz, EAEko Iturrien Katalogoa sortu eta behatoki horretan sartu zen, eta informazio kartografikoa, berriz, Eusko Jaurlaritzaren GIS korporatiboan. Estrategia horren barruan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskadiko naturari buruzko informazio-sistema bat garatu zuen.

Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistema, gaur egun, informazioa integratzeko, kontsultatzeko eta aztertzeko tresna bat da, datuak berrerabiltzeko eta pertsona eta erakundeek elkarlanean jarduteko aukera ematen duena.

Informazio-sistema berri baten lehen fasea ezarri da; eboluzionatu egin da teknologikoki eta funtzionalitate berriak txertatu dira:

- Espezieen, aipuen, kolaboratzaileen eta gaiarekin erlazionatutako erakundeen informazioa Interneten kontsultatzeko modulua, herritarrentzat irekia.
- Informazioa administratzeko eta kudeatzeko moduluak.

## JUSTIZIAKO SAILBURUORDETZA

Espetxeen eskumena Eusko Jaurlaritzari transferitu zaiola da 2021ean nabarmentzekoa, eta horrekin batera, baita zerbitzuaren jarraipena bermatzeak sortu duen lana ere, bai 2021eko urriaren 1ean, bai 2022ko urtarrilaren 1ean, Aukerak sortzearekin, bateragarri egin behar izan baitira aurretik zeuden informazio- eta azpiegitura-sistemak Eusko Jaurlaritzarentzat egokitu edo ordeztu behar direnekin.

Gainera, azpimarratu behar da espediente judizial elektronikoak kudeatzeko sistema berria jarri dela abian –Avantius–, azpiegitura espezifiko berri bat zabaldu dela Bateran eta sistema funtzionalki egokitzen hasi dela, elebitasuna gehituz.

Era berean, Baterako azpiegiturako hosting-zerbitzuari bere horretan eutsi zaio Justizia Administrazioaren informazio-sistema guztien euskarriarekin, eta beharrezko hedapen eta ezarpenei erantzun zaie eta gorabeherak konpondu dira.

### 2021EAN JUSTIZIARAKO EGINDAKO PROIEKTUAK:

- Justizia-jauregi guztietako LAN azpiegiturak berritu eta, nagusienetan, WIFI azpiegitura hedatu da.
- Justizia.eus atari berria, justiziaren egoitza elektronikoa eta Intranet berria garatu dira.
- Deslokalizatutako lanpostuak hedatu eta epaile, fiskal eta abokatuentzat lankidetza-tresnak jarri dira.
- EJIEk Justiziako Erabiltzaileentzako Arreta Zerbitzua bere gain hartu du. (Deitu)
- Justiziako informazio-sistemak Baterara migratzeko prozesua amaitu da.
- Ikustaldietako grabazioak testura ekartzeko, adimen artifizialean oinarritutako sistema bat garatu da.
- Erregistro zibiletan eta orientazio juridikoko zerbitzuetan ilarak kudeatzeko sistema bat hedatu da.
- Erabiltzaile guztiak Windows 10 postu korporatibo berrira migratu dira, eta postontzi bana eman zaie Elkarlanen.
- Lanpostuko ekipamenduen herena berritu da.
- Prestakuntza-ziurtagiriak emateko eta banatzeko kudeaketa-sistema bat garatu da.
- Bideokonferentzia bidezko konponbide bat diseinatu da ekitaldi judizial ez-presentzialetarako.
- Telefonia analogikoa IP bidezko ahotsera migratzeko proiektua abiatu da. (VoIP)



# ZERBITZU BATERATUAK

## OSAKIDETZAKO ETA JUSTIZIAKO LAN SAREAK BERRITZEA

OSAKIDETZA:

Txagorritxuko Kanpoko Kontsulten eraikinaren sareko elektronika guztia berritu da.

- Sareko instalazio guztia instalatu eta martxan jarri da (switch-ak eta wifia) Txagorritxuko Multzo Kirurgikoko eraikin berrian.
- Txagorritxuko Ospitaleko eraikin nagusiko armairuen eta kableen azpiegituraren ehuneko altu bat berritu da.
- WLANen soluzio berriko ekipamendu nagusia martxan jarri eta konfiguratu da.
- Barakaldo Sestao ESIn wifi azpiegitura berria (WiFi 6 teknologia) instalatu eta martxan jarri da.

JUSTIZIA:

- Justizia Jauregi guztien zuntza berritu da.
- WIFI antenak instalatu dira Justizia Jauregi nagusietan (Aranzabal, San Martín, Atotxa, Albia-Barroeta. Egiteke Buenos Aires)
- Justiziako sareko elektronika guztia berritu da (egiteke Buenos Aires)

## BISITARI ZERBITZUAREN EZARPENA

BISITARI zerbitzua abian jarri da (Interneterako doako sarbidea), Itelazpirekin koordinatuta, Osakidetzaren eta Justiziaren wifi azpiegitura osoan, eta 1.000 erabiltzailetik gorako gailurretara iritsi da.

## SOC ZERBITZUAREN EZARPENA

Gobernuarentzako SOC zerbitzua hasi da. EDR agentea hedatu da, eta iturrien konfigurazioak hasi dira, SIEMekin integratzeko

## ZOOM BIDEOKONFERENTZIA-ZERBITZUAREN HEDAPENA

SaaS ZOOM soluzioan oinarritutako bideokonferentzia-zerbitzu bat hedatu da, beste pertsona batzuekin bilera birtualak (audioa edo bideoa), txateoak, web mintegiak, zuzeneko emisioak... egiteko aukera ematen duena. Gaur egun, Osakidetzan, EJIEn eta Administrazio Orokorrean erabiltzen dira.

## OFFICE365 ADOPZIOAREN AMAIERA ETA W10EN BILAKAERA ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANPOSTU KORPORATIBOAN

Administrazio Orokorraren erabiltzaile guztien Microsoft Office365en SaaS zerbitzuetarako migrazioa amaitu da, eta posta elektronikoko Cloud zerbitzuak, fitxategiak, Teams eta abar eman zaizkie.



## IDENTITATE SEGURURAKO IDAAS SOLUZIOA HEDATZENA

Identitateak kudeatzeko SaaS soluzio berri bat hedatu da, batez ere Cloud zerbitzuetarako sarbide segururako eta euskarriko langileek barne-zerbitzarietarako sarbidea izateko pentsatua. Autentifikazio-faktore ugari definitzeko aukera ematen du, erabiltzailearen benetako nortasuna baieztatzeko.

## JUSTIZIAKO LANPOSTUAREN BILAKAERA, TELELANAREN IRTENBIDEA BARNE

**(mahaigain birtualak, identitate segurua, W10).**

Justizian lanpostu berri eta eguneratu bat hedatu da, segurtasunean, irisgarritasunean eta mugikortasunean oinarritua, edozein lekutatik modu seguruan lan egiteko.

## WINDOWS10 MIGRAZIOA OSAKIDETZAN

Osakidetzan W10 hedatzen amaitu da. Lanpostu-zerbitzurako sinatutako Batera-ren ekipamendu guztiaren kudeaketa zentralizatua egin da (Administrazio Orokorra, Osakidetza, Justizia, Alokabide,...).

## ORDENAGAILU ERAMANGARRIEN HEDAPENA HEZKUNTZA SAILAREN BIGARREN HEZKUNTZAKO SAREAN

Chromebook eta Windows eramangarriak entregatu eta martxan jarri dira, cloud tresnetan oinarritutako gailuen kudeaketa modernoarekin (Windowserako Intune eta Chromebooketarako GSuite) eta fabrikako ZTE zerbitzuekin, azken erabiltzaileak gailua martxan jar dezan, teknikari espezialisten esku-hartzerik gabe.

## JUSTIZIAKO ZENBAIT KOLEKTIBOREN MIGRAZIOA OFFICE365ERA

Kolektibo horiek Office365en ofimatika-soluzioa baliozkotzeko modua da, erakunde osoan masiboki hedatzeko.

## PPI ZERBITZUAREN HEDAPENA ERAKUNDE BERRIETAN

Zehazki ETS eta EJIEn. Snow egokitzea, zerbitzua ezarri eta kontsumitzeko.

## SDDC-TIK BATERA 2-RAKO GARAPENA

Batera-ren SDDC 2.0 berria hedatu eta ezarri da. Horrek, karga-domeinuen eta erabilgarritasun-multzoen araberako banaketa berriarekin (bi CPD aktibo-aktiboren antzera), aukera ematen du core aplikazioen euskarri den azpiegituraren erabilgarritasun-mailak igotzeko.

Era berean, aplikazio horien arintasunaren eta etengabeko entregaren beharrei erantzuteko, SDDC 2.0 berri honek azpiegitura eskaintzen du edukiontzietan oinarritutako cloud-native arkitektura duten aplikazioak (Kubernetes) produkzioan hedatzeko. Gainera, softwarearen bizi-zikloa modu sendoan garatzeko eta kudeatzeko tresnen eta fluxuen ekosistema osoa ematen du. Beraz, Cloud/MultiCloud/On Premise/Edge aplikazioetan aplikazioak hedatzeko gaitasuna dago, aplikazio korporatiboetan PaaS eta SaaS cloud zerbitzu berritzaileen kontsumoa gaituz, batez ere analitika eta machine learning zerbitzuei dagokienez.

## GERTU ZERBITZUA EZARTZEA

Sistemak Ustiatzeko Zerbitzu bat eskaintzera bideratutako eragiketa-eredu berri bat hedatu da, helburu nagusitzat zerbitzuen erabilgarritasuna eta jokoan jarritako baliabideen erabilera optimizatzea duena. Horretarako, eragiketa, diziplina anitzeko lehen mailako euskarria eta automatizazioa bateratzen dituen zerbitzu bat ezarri da, Lean metodologiaren eta jardueren estandarizazio eta automatizazioaren bidez gorabeheren aurrean erantzuteko denborak hobetzeko. Zerbitzua ematean eraginkortasuna etengabe eskatze horrek aukera emango du, azkenik, zerbitzuaren kontsumitzaileentzat hurbilago dagoen ustiapen-zerbitzu batera eboluzionatzeko, kontsumitzaileak barnekoak zein kanpokoak izan.

## AZPIEGITURA-ZERBITZU BATERATUAK

**Biltegiratzearen bolumen osoa**

**19.739,41 TB**

**1.815** Zerbitzari fisikoen bolumena, guztira

**11.450** Bolumena guztira mv

## ERAGIKETA

Ekoizpeneko aplikazioen hedapen-kopurua:

**6.475**

Batez beste: *539 hilean*

Batez beste: *17 hilean*

Kudeatutako batch prozesuen kopurua:

**607.406**

Batez beste: *50.617 hilean*

Batez beste: *1.664 hilean*

Batez beste: *69 hilean*

## IT KUDEAKETA

| IT kudeaketa-datuak | Jus | Osaki | SN | ITSM | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskariak | 196 | 16441 | 16951 | 16536 | **50.124** |
| Gorabeherak | 1906 | 32411 | 66331 | 250870 | **351.518** |
| Aldaketak | 450 | 934 | 2679 | 10420 | **14.483** |

## HOSTING-ZERBITZU BATERATUAK

**1.863**
Hosting-zerbitzuak kudeatutako datu-baseen instantzia-kopurua

**4.553**
Hosting-zerbitzuak kudeatutako aplikazioetako zerbitzarien kopurua

**3.450**
Hosting-zerbitzuak kudeatutako sistemetan sartutako aplikazioen kopurua



# LANPOSTUEN ZERBITZU BATERATUAK

Lanpostuen zerbitzuak kudeatutako lanpostuak

**206.047**

| Erakundea | PUZ / CPU |
|---|---|
| *Eusko Jaurlaritza (Administrazio Orokorra = Sailak)* | 5.900 |
| *Erakunde autonomoak (Eustat, HABE, IVAP, Lanbide eta abar)* | 3.433 |
| *Hezkuntzaren sektoreko sarea (ikastetxe publikoetako irakasleak)* | 145.613 |
| *Hezkuntzaren sektoreko sarea (bigarren hezkuntzako ikasleak)* | 9.939 |
| *Ertzaintzaren sektoreko sarea (ertzain-etxeak)* | - |
| *Justiziaren sektoreko sarea (Justizia Jauregiak)* | 3.398 |
| *Zuzenbide pribatuko ente publikoak (Osakidetza gabe)* | 580 |
| *Osakidetza* | 32.350 |
| *EJIE* | 997 |
| *IVF* | 13 |
| *IZENPE* | 41 |
| *KZGUNEA* | 2.444 |
| *SEGURTASUNAREN SEKTOREKO SAREA* | 1.339 |

Inprimaketa bidezko Ordainketa Zerbitzuak kudeatutako inprimagailuak

**13.886**

Telefonia mugikorreko zerbitzuak kudeatutako mugikorren kopurua

**11.963**

Kudeatutako erabiltzaileen kopurua

**177.294**

| Batera | Administrazio orokorra |
|---|---|
| 65.286 | 13.329 |

| Osakidetza | Justizia |
|---|---|
| 91.365 | 7.314 |

Elkarlaneko zerbitzuak kudeatutako postontzien kopurua

**67.937**

| Office365 | OnPremise | Osakidetza |
|---|---|---|
| 10.674 | 4.273 | 52.990 |

# KOMUNIKAZIO ETA SEGURTASUNEKO ZERBITZU BATERATUAK

## Datu-zerbitzua

| | Osakidetza | Administrazio Orokorra | Hezkuntza | Justizia | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Kokapenak Switch | 438 | 165 | 743 | 16 | **1362** |
| Kopurua Wifi | 1.699 | 506 | 3.300 | 193 | **5.698** |
| Antenen kopurua | 2.921 | 263 | 8.099 | 509 | **11.792** |

## IP ahots-zerbitzua

| | Osakidetza | Batera | Guztira |
|---|---|---|---|
| Luzapenen kopurua | 19982 | 11743 | **31.725** |
| Telefono-zenbakia | 19829 | 11520 | **31.349** |

## Bideo-zerbitzua

| | Osakidetza | Batera | Guztira |
|---|---|---|---|
| Kudeatutako bideo-ekipoen kopurua | 16 | 21 | **36** |

## Segurtasun Zerbitzua

| | Osakidetza | Administrazio Orokorra | Hezkuntza | Justizia | Batera | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kudeatutako segurtasun-sistemak | 152 | 76 | 798 | 17 | 85 | **1.128** |





# EKITALDIAK ETA ALBISTEAK

# EJIE-REN PARTAIDETZA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO **LEHEN TOPAKETAN**

2021ean, TEKgunearen lehen jardunaldien partaide aktiboa izan da EJIE: Euskal Administrazio Publikoarentzako topaketa eta berrikuntza teknologikorako gunean, hain zuzen ere. Esparru horretan, sortzen ari diren teknologiak eta berrikuntza-proiektuak ezagutzeko, EJIEk erreferentziazko bi proiektu aurkeztu zituen: “Nire ordainketa” eta “Itzuli”.

## EJIE EXTREMADURAKO JUNTAREKIN LANKIDETZAN ARI DA BERE APLIKAZIOA EGOKITZEKO ETA ERKIDEGOKO IBILGAILUEN PARKEA KUDEATZEKO.

Extremadurako Juntak 2021eko hasieratik erabiltzen du Eusko Jaurlaritzaren aplikazioa bere ibilgailuen kudeaketa ebazteko (ibilgailuen eskaerak eta esleipenak, mantentze-lanak, tailerra, azterketak).

Egokitzapen batzuk eginda, aplikazio hori EAEko eta Extremadurako administrazio publikoaren artean berrerabiltzea aukera ona da EJIEk dagoeneko diseinatutako eredu hori errepikatzeko, administrazio bakoitzak bere eredua eskuratu eta garatu beharrik gabe, baizik eta Eusko Jaurlaritzak xede horretarako sortu eta gaur egun erabiltzen duen aplikazioa egokituz.



*ALEX LARA*

Nire ordainketa, euskal administrazioaren ordainketa-pasabidea.

Alex Lara hizlari zela, bertaratutako ikusleek “Nire ordainketaren” abantailak ezagutu zituzten.

Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabideak ordainketa-funtzionalitate berria aurkeztu zuen: «tokenizatua».

«Nire ordainketa», funtsean, finantza-erakundeekiko elkarreragingarritasunerako azpiegitura bat da.

Honako erabilera-egoera hauek ahalbidetzen ditu: web ordainketa, leihatilako ordainketa eta mugikor bidezko ordainketa. Halaber, ordainketa seguruko estandar berrietara egokitzeko eta "tokenizatutako" ordainketa-funtzionalitate berri bat gehitzeko lanean ari da.



*OSCAR GUADILLA*

Adimen artifizialak euskaraz hitz egiten du.

Oscar Guadillak aurkeztutako "itzuli" proiektuak euskarazko etorkizun digitalari balioa ematen dio, adimen artifizialaren sistemari esker. Sistema hori erabiltzen da itzultzeko, sortzen ari diren teknologia berrien bidez herritarrekin euskaraz erlazionatzeko.

“Itzuli” proiektua itzulpen-zerbitzu bat baino askoz gehiago da, zalantzarik gabe; izan ere, Adimen Artifizialeko sistema batetik abiatuta sortu izanak aukera emango die sortzen ari diren teknologiei gure hizkuntzan lan egiteko eta herritarrekin harremanak izateko. EJIEk proposamen bat egin digu: etorkizun digitala euskaraz ikusten hastea.

# 2021EKO SARIAK ETA HAUTAGAITZAK






## CNIS sariak

### EUSKADI GARDENA, GOBERNU IREKIAREN PROIEKTU ONENAREN SARIA

Euskadi Gardenak 2021eko Gobernu Irekiaren proiektu onenaren saria jaso du, Zerbitzu Publikoen Berrikuntzaren Kongresu Nazionalaren (CNIS) eskutik. Eusko Jaurlaritzak gobernu irekiaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen esparruan egindako lana saritzen duen saria da. Gardena herritarren zerbitzura dagoen gardentasun-ataria da, gobernu-ekintzari buruzko informazioa eskaintzen duena.

Irekia, Gardena eta OpenData Euskadi ekimenetan oinarritzen da Eusko Jaurlaritzaren gobernu onaren proiektua. Irekia (www.irekia.euskadi.eus) Eusko Jaurlaritzak bere jarduerari, erabakiei eta planei buruzko informazioa eta datuak denbora errealean herritarren zerbitzura jartzeko daukan leihatila digitala da, baina, aldi berean, herritar horiei beren proposamen, ideia edo kontsultak planteatzeko aukera ematen die, horiek kontuan hartzeko eta aztertzeko.

Bestalde, Gardenak (Administrazioaren gardentasun-ataria: www.gardena.euskadi.eus) gobernu-ekintzari buruzko informazio guztia biltzen du. Gardentasuna OpenData Euskadi atariaren bidez ere gauzatzen da (www.opendata.euskadi.eus). Atari horretan, Eusko Jaurlaritzaren esku dauden datu publikoak herritarren eskura jartzen dira, modu berrerabilgarrian, hirugarrenek horietatik eratorritako zerbitzuak sor ditzaten.

# AMETIC saria

## **ITZULI ITZULTZAILEARI** ESKER, **EUSKO JAURLARITZAK** ADIMEN ARTIFIZIALEAN EGINDAKO LANAGATIK JASO DU SARIA.

Teknologia digitalaren industriaren Espainiako patronalak (AMETIC) Itzulin adimen artifizialean egindako lanagatik aitorpena eman dio Eusko Jaurlaritzari: itzultzaile neuronal horrek itzulpen automatikoak eta doakoak egiteko tresna eta zerbitzu adimendunak jartzen ditu herritarren eskura. Proiektu honek hainbat arlotan izan duen ibilbidea, eragina eta erabilgarritasuna izan dira sariaren gakoa.

Oskar Guadillak jaso du saria, Madrilen egindako ekitaldi batean. EJIEren azken emaitza Itzuli izan da, eta bere helburua herritarrei tresna adimendunak eskaintzea da, itzultzaile neuronal honen kasuan bezala. Guadillak adierazi duenez, sari honek berretsi egiten du Eusko Jaurlaritzak adimen artifizialaren alde eta tresna eta zerbitzu adimendunak sortzeko eta herritarren eskura jartzeko egiten duen apustua.

Telekomunikazioen, elektronikaren eta zerbitzu eta eduki digitalen arloan eraldaketa digitalean liderrak diren enpresak biltzen ditu Ametic-ek. Adimen artifizialaren Ametic Sariak emateko ekitaldia sektoreak urtero egiten duen AIAMSummit21 goi-bileran egin da. Jardunaldien inaugurazioa Nadia Calviño Espainiako Gobernuko bigarren presidenteordeak egin du.




# GovTech sariak

## **"MI PAGO WALLET"** EUROPAKO SARIETAKO FINALISTA

Berrikuntzaren bidez administrazio publikoak digitalizatzeko ahaleginak aitortzen dituzten GovTech Europako Sarietarako hautatutako 27 proiektuetako bat bihurtu da "MiPago Wallet". Europako Kontseiluak deitutako nazioarteko aitorpena da.

Javier Bikandik Europako Kontseiluak deitutako "Tech for Government: pitch session" izeneko jardunaldian aurkeztu zuen hautagaitza.



# ALDERDI EKONOMIKO GARRANTZITSUAK

# EJIE-REN MAGNITUDE
## Nagusiak
## (2020 / 2021)

EJIEk, Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publiko den aldetik, ez dauka mozkinak eskuratzearekin lotutako helbururik, eta haren xede nagusia eskuratutako diru-sarrerak errentagarri bilakatzea da, diru-sarreren eta gastuen arteko oreka lortuta.

1998. urteaz geroztik, EJIEk autofinantzaketara bideratuta dagoen finantza-eredua du.

EJIE behartuta dago auditoria egitera eta aurrekontuak aurkeztera Eusko Jaurlaritzak onar ditzan.



### Aktiboa guztira

56,4 / **60,9**
Milioi €

### Salmentak

132,2 / **145,8**
Milioi €

### Beste diru-sarrera batzuk

2,2 / **1,2**
Milioi €

### Gastuak

134,4 / **147,1**

| | | |
|---|---|---|
| Zerbitzu informatikoak erostea | 73,6 / **84,0** | Milioi € |
| Langileen gastuak | 14,6 / **14,7** | Milioi € |
| Beste esplotazio-gastu batzuk | 39,9 / **41,5** | Milioi € |
| Amortizazioak | 6,3 / **6,8** | Milioi € |

### Ibilgetuak

14,4 / **14,0**
Milioi €

| | | |
|---|---|---|
| Ukiezina (lizentziak) | 3,0 / **2,9** | Milioi € |
| Ekipo informatikoak (zerbitzariak) | 8,7 / **8,8** | Milioi € |
| Gainerako ibilgetua | 2,7 / **2,3** | Milioi € |

### Funts propioak

15,5 / **15,5**
Milioi €

Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkartea

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco

Euskadi, bien común

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| AENOR | AENOR | AENOR | AENOR | AENOR | AENOR |
| CARTAS DE SERVICIO | GESTIÓN AMBIENTAL | GESTIÓN DE LA CALIDAD | SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO | GESTIÓN ENERGÉTICA | SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN |
| UNE 93200 | ISO 14001 | ISO 9001 | ISO 45001 | ISO 50001 | ISO 27001 |
| CDS-2021/0008 | GA-2021/006 | ER-0320/2021 | SST-0124/2017 | GE-2017/0035 | SI-0038/2021 |

emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza erakundea
entidad colaboradora para la igualdad de mujeres y hombres

Q-epea Entidades Públicas Vascas por la Gestión Avanzada

CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

2015

5S Klub EUSKALIT

KUDEAKETA AURRERATUAREN KLUBA
CLUB DE LA GESTIÓN AVANZADA


## EJIE S.A.

Avenida del Mediterráneo 14
01010 Vitoria-Gasteiz
(Araba/Álava)

**945 017 300**
ejie@ejie.eus
www.ejie.eus